


Sagu-enbrioi sintetikoak sortu dituzte, obulurik, espermatozoiderik eta umetokirik gabe

Zelula-ametatik abiatuta, eta gametorik eta umetokirik erabili gabe, sagu-enbrioen ereduak egitea lortu dute Cambridgeko Unibertsitateko eta Kaliforniako Teknologia Institutuko ikertzaileek. [Nature aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.](#)

Sortu duten eredu biologikoak 8,5 eguneko garapena izatea lortu dute. Ez ditu egiazko enbrioi baten egitura guztiak, baina bai bihotz bat, taupadak emateko gaitasuna duena; garun bat, atal berezitukoa; hodi neurala; eta poltsa amniotikoa.

Urteetako ikerketaren emaitza izan da enbrioi sintetikoa, eta zelula amen konbinazio egokia lortzea izan da gakoa; horretara iristeko, saiakera asko egin dituzte bidean. Beste lorpen handi bat umetokiaren beharrik ez izatea da. Haren orde, [inkubagailu bat erabili dute.](#)

Onartu dute oraindik hastapenetan daudela, hortik aurrera ezinbestekoa baita kareinak parte-hartzea. Baina sortu duten enbrioiak aukera ematen du organogenesia eta enbrioiaren garapena ikertzeko, animaliak erabili beharrik gabe. ●



Enbrioi naturala ezkerrean, eta sintetikoa eskuinean.
ARG.: Amadei eta Handford.



Nonahi dago Seinale bat izango ote da?



**Aurtengo neguan,
jarri berogailua 19 °C-tan
eta aurreztu energia.**



EUSKADIKO
ITUN
BERDEA



1982 - 2022

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



Euskadi, auzolana



EUSKADI, AUZOLANA
GOBIERNO VASCO